

pergolari

Orioko Herri Ikastolako aldizkaria / 2015eko urtarrila / 12. zenbakia



Bihotzeko ikastola

OTSAILA-MARTXOA



APIRILA-MAIATZA



Egunero-egunero, hainbat ezagutza bereganatzeaz gain, ikasleri bizitzan sortu dakizkiokeen egoerei aurre egiteko, konpetentziak bere kabuz lortzen lagunduko die Ikastolak.

Alegia, bizitzan zehar agertu edota sortuko zaizkion problema-egoerak konpontzeko, aproposak diren gaitasunak eskuratuko ditu ikasleak. Hala, Ikastolan planteatu eta landu beharko dituen egoerak baliagarriak eta esanguratsuak izango zaizkio ikasleri bizitzan.



EKAINA-UZTAILA



Irakaslearen eta ikaslearen rola erabat aldatzen dira konpententzietan oinarritutako hezkuntzan. Ikaslea prozesuaren erdigunean kokatzen den eragile aktiboa da, eta pertsona bezala garatzeko, bere kabuz hainbat konpetentzia lortzen joango da, gidari-laguntzaile den irakaslearen arrimuan.



EGOKITZAPENA...



ABUZTUA-IRAILA



MAKINA BAT DENBORA BEHAR DUGU!

DENBORAREN MAKINA PINTATZEN...

Integrazioaren pedagogian oinarritzen da. Metodologia iraultzaile horretan, guztiak dira hizkuntza irakasle, guztiak dira matematika irakasle...



SALTOKO OTE DUTE BARRURA?



HI HAIZ HI PERREXILA!

IKASTURTE BERRIRAKO SUKALDE LANA...



GURASOEK DIOTEN BEZALA, IRAKURRI LETRA TXIKIA.



FACEBOOK ETA CHROMEBOOK, DENAK DITUGU GUK!



HALA BAZAN, EZ BAZAN...



NIK LAN ASKO EGIN DUT GAUR!



ZER ARI ZARETE IKASTEN ZUEK?

GU, GEOLOGIA!

URRIA-AZAROA



Ikasleen sormena areagotzea da beste helburu nagusienetakoa. Izan ere, ebatzi behar dituzten hainbat egoerari irtenbide egokiak ematen saiatu behar dira ikasleak, eta, horretarako, nahitaezkoa da sormena lantzea.



ABENDUA-URTARRILA



Ikasle sortzaileak, kooperatiboak eta sozialak osatu nahi dira.

Orion, Euskal Herrian eta mundu guztian, ingurukoekin elkarlanean eta gizartea hobetzeko, ekarpen aberatsak egingo dituztenak.

Norbere nortasunetik abiatuta, gaitasun guztiak garatzeko gai izango direnak.



Ongi etorri ikastolara!

Ikasturte honetan 66 haur hasi zarete gurean, eta poz-pezik gaude gu aukeratu gaituzuelako. Asko baldin bazarete ere, talde txikitan zainduko zaituztegu, goxo-goxo, zuetako bakoitza baita garrantzitsua guretzat. Guraso eta etxekoekin elkarlanean, gu ere zuen heziketaren partaide izango gara. Zuen ongizatea gurea balitz bezala zainduko dugu. Zuhaitz erraldoia da gurea, sustraiak ondo errotuta dituen zuhaitz zabala: guraso, guraso-ohi, ikasle, ikasle-ohi, irakasle eta langile guztiak gara bertako adar, eta zuek, aurten sortutako kimu berriak. Pixkanaka-pixkanaka adar sendo bihurtuko zarete, beste adartxo batzuei lekua utziz. Ongi etorri, Aitor, Beñat, Aiala, Itxaso, Malen, Markel, Oinatz, Ekai, Aimar, Amets, Nahia, Asier, Izar, Ander, Ninbe, Laia, Eliot, Garbiñe, Elene, Selene, Unax, Lur, Maren, Uxue, Alejandro, Axier, Jon, Luken, Anuxka, Julen, Dei, Oskitz, Aiora, Unai, Malen, Aiur, Kattalin, Mikel, Andde, Oier, Lur, Nahia, Irati, June, Aimar, Carla, Libe, Iban, Oier, Unai, Aritz, Iraia, June, Anje, Eñaut, Oihan, Jare, Danel, Aiora, Ganix, Leire eta Iraide!!! Biba zuek!



kutxa